


Lurraldeak bilerak hasiko ditu Batzar Nagusietako alderdiekin

«Aukera guztiak agortuko ditugu akordioaren onarpena lortzeko»

Gipuzkoako Batzar Nagusietako alderdi politikoekin kontaktuak hasiko ditu hurrengo egunotan Lurraldeak koordinakundeak. Galdos-Lurraldeak akordioak Batzar Nagusien onarpena lortzeko aukera guztiak agortuko dituela azaldu zuen atzo, eta 'Akordioari Bai' lema duen logotipoa aukeztu zuen.

DONOSTIA



Lurraldeko partaideak Galdosekiko bileraren irteeran.

VILLAGRAN

tugu eta kalean alibio eta akordioak dakarren irtenbidearen aldeko jarrera somatu dugu» azaldu du Lurraldeak.

'El Mundo' egunkariak atzoko alean keleratutako informazioari buruz, «hau da bigarren aldia hilabete bate buruan, egunkari honek Lurraldeak egiaztasunik ez duen intoxikazio informatibo batekin erlazionatzen duena» erantzuten du koordinakundeak. «Lurraldeak intoxikazio honen iturria ongi ezagutzen du eta eta aurki salatuko du, egoki iruditzen zaio une eta moduan» azaldu zuen atzo. 'El Mundo' kaleratu zuenez, ustez Lurraldearen barne agiri baten berri eman zuen atzo. Bertan, autobidearek buruzko negoziaketarako Lurraldeak ETaren parte hartzea espero zuela esaten da.

'AKORDIOARI BAI' LOGOTIPOA Autobidearen auzia noraino iritsi den ikusita, hilaren 21erako 'Akordioari Bai' lemapean deitu duen manifestazioa erabakiorra izango dela uste du Lurraldeak, «herri honek zenbateraino desio duen akordiozko irtenbidea eta ez

enfrentamentuzkoa adierazteko, eta gizarteak nahi duenaren kontra daudenei begiak irekitzeko».

Zentzu honetan, Lurraldeak aurrerantzean erabiliko duen logotipoa aurkeztu zuen, 'Akordioari Bai' lema du eta eguzki bat du marraztua. Hau da mugimendu sozial honek erabiltzen duen hirugarren logotipoa. Lehen etapa autobidearen kontrakoa izan zen, Lurraldearena gero eta akordioarena oraingoa, Lurraldeak berak azaltzen duenez. Hirugarren etapan otsailean sartu zela dio, elkarriketaren alde egin zen manifestazioaren ostean.

Egun gutxitara beste manifestazio bat egin zen, trazaketa ofizialaren aldekoa, eta horrek bi sentsibiltate desberdin agerian utzi zituela dio Lurraldeak. «Ordutik aurrera, eta ikuspuntu demokratikotik, alternatiba bat bestearen ginetik jartzea ez zen bidezkoa, horregatik Lurraldeak kontsentsuzko trazaketa bat hasi zen onartzen bere debateetan irtenbide bezala. Etapa berri bat zabaldu dela onartzen dugu, akordioarena» azaldu zuen atzo Lurraldeak komunikabideetara zabalduko agerian.

EAJk ez dio HBri erabakiaren akatamendua berrestea eskatu

P. URZELAI / DONOSTIA

Euzko Alderdi Jeltzaleak ez dio HBri Batzar Nagusietako erabakiaren akatamendua berrestea eskatu, egun hauetan zenbait komunikabideek argitaratutako albisteak EAJ eta HB alderdietan gertatu dutenez.

Informazio hauen arabera, EAJk eskatu egingo zion HBri abuztuaren 16ko idazkian azaltzen zuten Batzar Nagusien erabakiaren akatamendua berrestea eta horretarako epe bat ere emango zion. Gogoratuko denez, HBk abuztuaren 16an idazki bat eman zuen ezagutzera eta bertan honako hau baieztatu zuen: «Interesatuki bultzatu den nahas giro horren aurrean Herri Batasunak argitu nahi du aipatutako akordioa Gipuzkoako Batzar Nagusietan aurkeztu bada eztabaidaren eta bozketaren emaitza onartuko du, edozein dela ere». Orduko baieztapen haren berrespena egiteko epea atzo bukatuko zen aipatutako informazioen arabera. EAJn eta HBn ukatu egin dute horrelakorik egin denik.



Joseba Egibar.

VILLAGRAN

buelta emateko ahaleginak egiten ari dira bi aldeak. Izan ere, EAJk bilera berri bat izango aste honetan PSE-PSOEekin eta Lurraldeak Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkide taldeekin bilerak egiteko gestioak eginak dituzte.

Azken ahalegin hauen emaitzen arabera luza daiteke Lurraldeak-Galdos aurreakordioaren etorkizunari buruzko erabakiaren epea.

Bestalde, EAJko Euzkadi Buru Batzarrek eta HBko Mahai Nazionalak atzo egin zuten ohizko bilera eta autobidearen arazoaren egoera aztertu ere. Baliteke alderdi bi hauek goi organuek gai honi buruz erabakirik ez hartzea atzo, gertaera berrien zain eta datorren asteak bilerara arte itxarotea.

Bi alderdi hauek laster batean bildu beharko dute, Belabietako alternatibaren ez arauzko proposamenarekin zer egin aztertzeke, beharrezko apoioak lotuta ala ez. Atzo bilera horren data jarri gabe zegoen.

AKORDIARAKO ASTE ERABAKIORRA

Lurralde eta Eli Galdosek abuztuaren 9an lortutako adostasunaren etorkizuna une honetan iluna baldin bada ere bai Lurraldean zein EAJn ez dute galdutzat ematen aurreakordioa aurrera eramateko saioa.

Belabietako edo A-4 alternatiba kontsentsuatuak ez du une honetan Batzar Nagusietan aurrera egiteko beharrezko apoioa, PSE-PSOE, EE, EA eta PP (26 boto guztira) kontra azaldu direlako, EAJk eta HBk batzen dituzten botoak (24) ez arauzko proposamena onartzeko nahikoak ez direlarik. Dena dela, egoerari

Autobidea ez da inorentzat errentagarria Alliren ustez

IRUÑA

Hamar eguneren buruan Nafarroako lehendakari izango den Juan Cruz Alliren ustez, «dagoneko autobidea ez da errentagarria ez HBrentzat, ezta ETarentzat ere».

UPNkoak egunkari gipuzkoar batean azaldu duenez, Herri Batasunak eta ETAK pentsatu izan zuten hasiera batean Irurtzun-Andoain autobidearen auziak errentagarritasun politikoa eduki zezakeela, Gipuzkoan gehienbat, bazegoelako proiektu ofizialaren kontrako gizarte oposizioa. Gainera, autobidearen auzian sartzea «bat zetorren gizarte mugimenduaren gidari izatearen printzipioarekin», Juan Cruz Alliren esanetan.

HB eta ETA ohartu dira autobidea ez dela ezertarako errentagarria Nafarroan eta uste baino gutxiago Gipuzkoan, politikari nafarrak dioenez. Honen iritziz, «HBk eta ETAK konponbide duina nahi zuten autobidearen gatazkarentzat, baino argi dago autobidea ez dela Lemoiz». Allik goraipatu izan du EAJn Lurraldeko ordezkariekin lortu izandako aurreakordioa. Ez da inolako «txantaiarik» egon eta ez da amore eman ETaren indarkeriaren aurrean. UPNkoaren irudiko, «EAJk elkarbizitza politikoa normalizatzeko ahaleginak egin ditu. EAJk bazekien HBko zenbaitzuk erakundeetan parte hartzearen alde zeudela eta horregatik nahi izan du ekimen horren bidez erakundeen aldeko bultzatzea.

Diputazioak hirugarrenez izango du mahai gainean enpresaren aldaketa

P.U. / DONOSTIA

Gipuzkoako Diputazioaren Kontseiluak hirugarrenez izango du mahai gainean gaurko bileran autobideko enpresa adjudikatzaileraren aldaketa. Abuztuaren 26an, Ramos Hidalgo S.A. enpresak idazki bat bidali zion Gipuzkoako Diputazioari Construcciones Murias enpresarekin akordio bat lortu zuela esanez eta autobidearen eraikuntzaren lehen fasearen adjudikazioa azkenengo enpresa honi uzteko eskatuz.

Gipuzkoako Diputazioaren Kontseiluak hurrengo eguneko ohizko bileran aztertu zuen Ramos Hidalgo S.A. enpresaren eskaera eta ez zuen erabakirik hartu, PSE-PSOEko foru diputatuek arazoa hobeto aztertzeke denbora gehiago eskatu zutelako.

Astebete pasatu zen eta joan den astearteko bileran berriro aztertu zen

gaia baina Diputazioaren Kontseiluak berriro erabakirik hartu gabe amaitu zen. Atzerapen guzti hau, PSE-PSOEren jarreratik dator, EAJ, Roman Sodupek adierazi zuen bezala, lehen momentutik aldaketa onartzeko prest zegoelako. PSE-PSOEek ez du kontrapartidarik gabe onartu zezioa eta baldintza batzuz jarri dizkio EAJri, hauen artean, kontratua A-2 trazaketa ofiziala betetzeko egin dagoelako baieztapena.

EE-K EGINIKO ESKAERA

Gaur bertan ere Batzar Nagusietako Mahaia bilduko da eta gutxienez hiru eskaera aztertuko ditu. Batetik, Eli Galdos diputatu nagusiak egingakoa. Eli Galdosek Batzar Nagusien osoko bilkuran agertzea esakatu dio Mahaiari, Lurraldearekin gauzatu zen adostasunaren pausuen eta gestioen berri eman asmoz. Roman

Sodupe Garraio eta Errepideetako foru diputatuak ere Batzar Nagusien aurrean agertzea eskatu du obraren egoeraz eta aspektu teknikoetaz informatzeko.

Hirugarrenik, Euskadiko Ezkerako batzardike taldeak beste eskaera hau egin du: Ramos Hidalgo S.A. enpresako zuzendaritzaren eta langileen ordezkariak Batzar Nagusietan agertzea.

EEko herrialdeko batzordearen ustez, Gipuzkoako Diputazioak ez luke erabakirik hartu behar enpresaren aldaketaz, Ramos Hidalgo zezio egiteko izan dituen arazoak Batzar Nagusietan argitzen ez diren bitartean.

Patxi Baztarrikak sinatzen duen eskabidean, zezioaren arazoak argitzeko beharra azpimarratzen da, «presioek eragindako erabakia» delako zalantzak bait daude.